



HERRIZAINGO SAILA

Herrizaingo Sailburuordetza
*Hauteskunde eta Dokumentazio
Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE INTERIOR

Viceconsejería de Interior
*Dirección de Procesos Electorales
y Documentación*

PRENSA OHARRA

Arabán 12 hautagai zerrenda aurkeztu dituzte, Bizkaian 16 eta Gipuzkoan 11.

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak. 39 zerrenda aurkeztu dituzte guztira EAEko hiru barrutietan

2009ko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetarako hautagaitza aurkezteko epea urtarrilaren 21ean hasi eta hile bereko 26an bukatu zen. Epe horretan alderdi politikoek eta hauteskunde-elkarteek legez beharrezkoak diren agiri guztiak entregatu zituzten Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako probintziako hauteskunde-batzordeetan.

Aurkeztutako hautagaien zerrendak gaur publikatu dituzte Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

- Arabako Lurralde Historikoan 12 zerrenda aurkeztu dituzte ordena honetan:

- 1.- EAJ-PNV
- 2.- PSE-EE (PSOE)
- 3.- UPyD
- 4.- ARALAR
- 5.- PP
- 6.- BERDEAK- Los Verdes
- 7.- D3M
- 8.- EB-B
- 9.- ASKATASUNA
- 10.- EA
- 11.- PUM+J
- 12.- POSI

- Bizkaiko Lurralde Historikoan 16 hautagaitza aurkeztu dituzte hurrenkera honetan:

- 1.- PSE-EE (PSOE)
- 2.- EAJ-PNV
- 3.- ARALAR
- 4.- PP
- 5.- BERDEAK-LOS VERDES
- 6.- UPyD
- 7.- EKA-PC
- 8.- EA
- 9.- PFyV
- 10.- PUM + J
- 11.- EB-B
- 12.- ASKATASUNA
- 13.- PACMA
- 14.- D3M
- 15.- POSI
- 16.- PH

- Gipuzkoako Lurralde Historikoan 11 hautagai zerrenda aurkeztu dituzte era honetan zerrendatuta:

- 1.- EAJ-PNV
- 2.- PP
- 3.- PSE-EE (PSOE)
- 4.- UPyD
- 5.- EB-B
- 6.- B-LV
- 7.- D3M
- 8.- EA
- 9.- PUM+J
- 10.- ARALAR
- 11.- ASKATASUNA

Ordezkarri politikoei irregulartasun posibleak jakinarazi eta horiek konpondu ostean, Lurralde Historikoetako Hauteskunde-Batzordeek otsailaren 2an izendatuko dituzte autonomi hauteskundeetan parte hartuko duten zerrendak.

Hurrengo egunean (otsailak 3) izendatutako zerrendak publikatuko dira EHAA-n. Zerrendak zeintzuk diren esatean horien kontrako errekurtsioak egiteko aukera egongo da. Zerrenden kontrako aurkaratzeak otsailaren 4an eta bostean egin beharko dira eta auzitegiek bi egunetan, hau da, otsailaren 6an eta 7an hartu beharko dute erabakia. Aurkaratutako zerrendek Konstituzio Auzitegian babes eskeko helegitea egiteko aukera izango dute eta auzitegiak kanpaina hasi aurretik (otsailak 12) eman beharko du epaia.